Ante todo los Carnavales son una fiesta popular por excelencia, al tiempo que participativa, porque ahí se disfrazan todos, padres, madres, abuelos y un público siempre fiel…los niños. Esta es su Fiesta, después de los Reyes Magos y Olentzero si se le pregunta a cualquier niño o niña cuál es su fecha favorita, sin ninguna duda, responderá que los Carnavales. Para ellos significa disfrazarse y con eso ya está todo dicho.

En estas fechas todos los colegios viven con locura el Carnaval, meses antes ya saben cuál va a ser su disfraz y únicamente les queda ya esperar a que el tiempo no les ague mucho la Fiesta. Curiosamente, este año la lluvia dio paso a un protagonista nuevo, la nieve, pero daba igual, la cosa era saltar un poco más para entrar en calor y olvidarse del termómetro y sino ser tan previsores como los de Ondarreta de Andoain que se disfrazaron de muñecos de nieve.

Pero en estas Fiestas no sólo se disfraza el alumnado, sino también los profesores y profesoras y los padres y madres. Hablando de estos últimos, es de obligada referencia la Asociación de padres y madres de Luis Ezeiza de Eskoriatza que, año tras año, se embarcan en una nueva aventura en la que, en base a una temática completa, se montan todo un ‘conjunto’. En esta ocasión han ido de hippies con furgoneta y todo, a la que han engalanado como si de la carroza de Cenicienta se tratara.

El colegio San José de Calsanz, del donostiarra barrio de Altza, tampoco quiso ser menos y, pese al mal tiempo de ese jueves gordo, se decidieron a salir y desfilar por el barrio, como también lo hicieron cientos y cientos de niños de los colegios de toda Gipuzkoa. “Lo nuestro es casi vocacional, Altza entera vive esta fiesta con auténtica devoción, nadie se queda sin disfraz esos días y, por supuesto, que en el centro también el profesorado participa disfrutando tanto como el alumnado”, nos cuenta el director del centro, Iñaki Etxeberria.





# “Jai ero-eroa”.

Inauteriak joan badira ere, eta aurtengoak nagusiki hotzagatik eta euriagatik gogoratuko baditugu ere, nahitaez aipatu behar ditugu, horiexek baitira jaien artean nagusi, letra larriz idazteko mailakoak, nahiz eta Gipuzkoa ez den oso inauteri zalea, salbuespen ohoragarriak salbu, noski; salbuespen horien artean dago, jakina, Tolosako herri noble eta leiala. Hala eta guztiz ere, beti daude jai guztien jarraitzaile leialak: batetik, haurrak, beti festarako prest egoten direnak, eta are gehiago mozorroak, barreak, musika eta aurpegietako margoak –aukeran distiratsuak nahiago- tartean badira, eta bestetik, gurasoak, haiei atsegin emateko edozer gauza egiteko gai direnak. Horren guztiaren adibide da Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeko Guraso Elkartea, mozorroa jantzi eta Udalak antolatzen duen Inauteri Jaian parte hartzen duena urtea joan urtea etorri. Donostiako Altza auzo jatorrean ere inauteriak erlijiozko betebeharra bailiran ospatzen dira, eta horrela ospatzen dituzte bertan den San Jose de Calasanz ikastetxekoek. Bestalde, Andoaingo Ondarreta ikastetxean gogo handiz prestatzen dituzte mozorroak, jantzirik errepikatu gabe, eta hori ez da gutxi!.







# Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 170 institutuetan jarriko dira eguzki-panel fotoboltaikoak, 3 urteko epean

**CONVENIO EVE-DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

**La energía solar fotovoltaica este año nuevamente va a experimentar un notable impulso como consecuencia de la renovación del Convenio de colaboración puesto en marcha por el Ente Vasco de la Energía (EVE) y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. La renovación de dicho Convenio, que es pionero en el ámbito del Estado, se concreta en la instalación, puesta en funcionamiento y explotación de 60 instalaciones solares fotovoltaicas conectadas a la red eléctrica en otros tantos institutos públicos de enseñanza secundaria de Bizkaia, Araba y Gipuzkoa a lo largo del presente curso. Cada instalación tendrá una potencia aproximada de 5 kW, por lo que la puesta en marcha del Convenio aumentará en un 50% la potencia total instalada en la CAPV correspondiente a este tipo de energía a 31 de diciembre pasado, que según datos del EVE era de 664 kW.**

Herritarrak energia berriztagarrien abantailei buruz ohartarazteko estrategiaren barruan sartzen da ekimen hau. Baina estrategia horri jarraitzeaz gainera, hitzarmen honen bitartez, urtea amaitu baino lehen nabarmen handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko eguzki-energia fotoboltaikoen parkearen ahalmena, alderdi kuantitatiboari dagokionez.

## 60 ikastetxe publiko eguzki-energia fotoboltaikoz hornituko dira 2003-2004 ikasturtean zehar

Hitzarmen aitzindaria da Estatuan, eta horri esker 60 eguzki-instalazio fotoboltaiko abian jarri eta ustiatuko dira. Instalazio horiek Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako hainbat ikastetxe publikoren sare elektrikora lotuko zaizkio. Instalazio bakoitzaren batez besteko ahalmena 5 kW-koa izango da; beraz, hitzarmenaren bitartez %50 handituko da EAEk 2003ko abenduaren 31n era horretako instalazioen bitartez lortzen zuen energia ahalmena -Energiaren Euskal Erakundearen arabera, 664 kW-.

Kontuan hartu behar da gainera, hitzarmena aurrera begirako asmoarekin sortu zela. Bai EEEk bai Hezkuntza Sailak aurrerantzean ere egitasmoari sostengua emateko asmoa dutela adierazi dute, eta hiru urteko epean EAEko Bigarren Hezkuntzako 170 inguru institutu publikoek instalazio fotoboltaikoa izatea lortu nahi dute.

**Eraikinen fatxadetan eta teilatuetan**

Instalazioak era harmonikoan txertatu beharko dira ikastetxeetako teilatuetan edo fatxadetan, nabarmen gelditu ez daitezen. Kontuan hartu behar da 5 kW-ko ahalmena lortzeko 45 eta 50 $m^2$ bitarteko azalera jotzen dela egokitzat.

Eguzki panelak teilatu lauetan edo bi isurkiko teilatuetan instalatuko dituzte bereziki, eta ahaleginak egingo dira eraikinen kanpoko arkitekturan ahal bezain gutxien eragiten. Hegoalderako orientazioa eta 30º-ko makurdura dira panelak jartzeko idealak, Euskal Herriaren latitudea kontuan hartuta betiere; hala ere, baldintza horietakoren batean aldaketa txikiren bat eginda ere, ez da murrizketa nabarmenik gertatuko energiaren aprobetxamenduan. Dena dela, litekeena da instituturen baten kokalekua kontuan hartuta, instalazio fotoboltaikoak bideraezinak izatea. ♣



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENARI ESKER

# eguzki panelak izango ditugu ikastetxeetan

Eguzki-energia fotoboltaikoak garrantzi handiko bultzada izango du aurten, berritu egin baita Energiaren Euskal Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetza hitzarmena.



## Hitzarmenaren bigarren fasea

Hitzarmenaren bigarren fasean parte hartuko duten ikastetxeen hautaketari dagokionez (Bizkaiko 27, Gipuzkoako 25 eta Arabako 8), kontuan hartu da herrialdez herrialdeko banaketa, ikasle kopurua (ahal bezain ikasle gehienengana iristeko ahalegina egin da) eta institutuetan "PREMIA" sare informatikoan txertatzeko dauden baliabideak. Kontuan hartu behar da proiektuaren barruan aplikazio informatiko bat sartu dela; aplikazio horri esker instalazio guztien jarraipena egin ahal izango da, esate baterako, ahalmenarena, sortutako energiarena, etab.

Hezkuntzaren eta gizartearen sentsibilizazioaren alorrean lortu nahi diren helburuak aintzat hartuta, hitzarmenaren ekimenez material didaktiko osagarriak osatu eta institututan banatuko dira; irakaskuntzako ziklo bakoitzera egokituak izango dira, eta ikasleei zein irakasleei zuzenduak. Horrez gainera, ikastetxe guztietan argibide taula bat jarriko da; bertan, eguzki-instalazio fotoboltaikoei buruzko informazio orokorraz gainera, ikastetxean bertan instalatu den ekipoari buruzko datu zehatzak emango dira. Taula hori ikastetxeko gune nabarmen batean jarriko da, eta energia aurrezteari buruzko mezu orokorrak eta energia berriztagarriak aplikatzeko aukerei buruzkoak jarriko dira.

Baina ekimen honetan parte hartuko duten ikastetxeek izango dute beste abantaila bat ere: eguzki-instalazioak jarri eta lehenengo urtean fakturazioaren analisia egingo da, eta baita energia kontsumoaren analisia ere, halako eran non energian egiten den gastua optimizatzeko plangintzak egin ahal izango diren. Horrez gainera, energia zentzuz erabiltzeko sentsibilizazio kanpainak egingo dira ikastetxe guztietan.

# Protagonistas, LAS AMPAs









En este segundo número de 'Baikara' vamos a intentar inaugurar una nueva sección, que confiamos en que de sus frutos ya que, para ello, dependemos totalmente de vosotros las AMPAs.
Necesitamos que nos hagáis llegar vuestras experiencias dinamizadoras y como botón de muestra sirva lo que nos ha enviado el AMPA de Luis Ezeiza Herri Eskola (Eskoriatza)

Hace cuatro años y para potenciar la asociación de padres y madres de nuestro centro se nos ocurrió participar activamente en el carnaval utilizando la mascota del colegio, un agradable muñequito, pensando que atraería a los niños y con ello a los padres y madres. El dato preocupante era el número de asociados que rondaba, por aquel entonces, el 50%.

El martes de carnaval fue el día elegido para darle publicidad a la mascota bautizada KOLDOTXO (por el nombre del colegio Luis Ezeiza). Se representó Koldotxo Jatetxea, ¡qué mejor ocasión que ésta para que todos disfrazados de camareros de alto copete montasen un restaurante, con capacidad para 60 personase, e invitasen a todo un pueblo a degustar las viandas preparadas por los padres y madres del colegio!.

**Koldotxo Baserrian y Koldotxo kobazuloan**

Visto lo visto el año siguiente había que repetir la experiencia y se apostó por KOLDOTXO BASERRIA. Se fabricó un caserío, se decoró por dentro y por fuera y se crearon animales de madera; se habilitó, como no podía ser menos, una parte para sagardotegi donde se dio a degustar queso, membrillo, nueces y sidra. Resultó un éxito y el número de socios de la Asociación estaba ya en el 65%.

Un viaje cultural a la Neocueva de Altamira nos dio la idea para el año siguiente y montamos KOLDOTXO KOBAZULOAN. Ochenta padres y madres disfrazados de mujeres y hombres primitivos representamos en la plaza del pueblo la vida de aquella época, en colaboración con el museo-eskola de Eskoriatza. Finalmente, este año el Ayuntamiento se dio cuenta de que dábamos vida al sábado de carnaval y nos animó a integrarnos en sus 'actividades carnavaleras', y así lo hicimos con nuestro KOLDOTXO JIPPIA. En resumen, el número de socios está ahora en un 89%. Todo un éxito. ♣

**EKIMEN EREDUGARRIA**

Orain dela lau urte, Luis Ezeiza herri eskolako (Eskoriatza) guraso elkarteari bultzadatxoa emateko xedeaz, inauterietan era aktiboan parte hartzea bururatu zitzaion ikastetxe horretako zuzendaritza batzordeari. Eskolako maskota, KOLDOTXO izeneko maskota polita, erabili zuten horretarako, eta maskotaren bidez haurrak eta gurasoak erakartzea zen beren asmoa. Izan ere, kezkatuta zeuden garai hartan IGEak zuen kide kopuruarekin, gurasoen %50 ingurukoa baitzen. Inauteri haietako asteartean egin zuen Koldotxok estreina; "KOLDOTXO JATETXEA" aurkeztu zuten. Hurrengo urtean "KOLDOTXO BASERRIA" atera zuten, ondoren "KOLDOTXO KOBAZULOAN", eta aurtengoan, berriz, "KOLDOTXO JIPPIA" ibili da kalez kale. Gaur egun gurasoen %89 inguru dira elkarteko bazkide.

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

**Aurten ere Bilbon egingo da Euskal Eskola Publikoaren Jaia,** hamahirugarrena. Ekaineko lehen igandean izango da, ohi denez; ekainaren 6an, beraz. Behin betiko egitaraua oraindik prestatu gabe dago eta hamaika xehetasun gelditzen dira zehazteko, baina zenbait gauza aurreratzeko moduan gara.

Adibidez, Gatibuk joko duela, eguraldiak eragozten ez badu, iaz ezin izan baitzuten emanaldia eskaini eta gaztetxo askok haien abesti “kañeroak” entzun gabe gelditu behar izan zutelako. Beste urte batzuetan bezala, adin guztietako jendearentzako ekitaldiak antolatuko dira: txikientzako puzgarrien ohiko haur parkeak, ohe elastikoak,... eta baita pailazoak, kale antzerkia, txotxongiloak... ere. Aurten berriro ere ikastetxe bakoitzak nahi duen ekintzan parte hartzeko aukera izango du, eta horretarako agertoki bat erabili ahal izango dute. Azkenik, urteroko esperientzia ikusita, Klaratarrei, edo dagokionari, arrautzak eramatea baino ez da gelditzen, eguraldi ona egitea garrantzi handikoa baita kanpoan egiten diren era honetako jaiak ondo ateratzeko.






## IKAS-BIREN XVIII JAIA DONIBANE LOHIZUNEN

**Aurten ere Hegoaldeko milaka herritarrek bisita** egingo dute Donibane Lohizuneko Ducontenia parkera, Iparraldeko herritarrekin batera hango ikastetxe publiko elebidunen jaia ospatzeko. Aurtengoa, XVIII. Jaia, maiatzaren 2an izango da, eta, aurreko urteetan egin duten moduan, ekitaldi horretan parte hartuko dute, besteak beste, Donostiako Zuhaizti Eskolako eta Ordiziako Urdanetako dantza taldeek. Euria eginez gero, ekitaldi guztiak herriko tenis zelai estalian egingo dira. Ea eguraldiak laguntzen duen!.



## ESKOLA TXIKIEN FESTA

**Aizarnazabalen ospatuko da,** aurten, Eskola Txikien festa, ekainaren 13an, igandean. Aduna, Aginaga, Aia, Aizarna, Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Andatza, Angiozar, Arroa, Asteasu, Berrobi, Bidegoian, Elgeta, Ereñozu, Errezil, Gabiria, Ikaztegieta, Lizartza, Oikia, Zerain, Zizurkil eta Zubieta, Eskola Txikien Federazioko kide izaki, Aizarnazabalen elkartuko dira, beraz, egun horretan, jaia ospatzera; musika eta dantzarik ez da faltako, besteak beste.



## CAMPAÑA DE MATRICULACION



**El pasado mes de febrero** tuvo lugar la campaña de matriculación para los centros sostenidos con fondos públicos. Una campaña en la que la Federación participó activamente subvencionando, al igual que otros años, la inserción publicitaria de los colegios en las revistas locales y comarcales, además de difundiendo una serie de carteles y programas publicitarios de mano que, todos los años, elabora el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.



## BELLAS Y GENERALES



**La Fiesta de San Sebastián** nos dejó en esta ocasión un "cartel" muy especial, el formado por los alumnos de la Ikastola Ikasbide de Donostia. Por fin este año les tocó a ellos representar a la ciudad en tan especial jornada. La Bella Easo recayó enLide Mateos, con Ana Blanco y Mónica Linaje como damas de honor; el General le tocó, y nunca mejor dicho porque fue por sorteo, a Iñigo Pérez de Amézaga y su ayudante estuvo bien represantado por Unai Bollero. Actuaron también de damas: Itsaso Pérez, Maialen Marin, Irati Retegi, Amaia Etxeberria, Heidi Otaduy, Maddi Arrieta, Estitxu Cabezón y Nora Tapia.

## SEMANA DE TEATRO EN INTXAURRONDO IKASTOLA

**Esta es la VII edición** de una Semana especial en la Ikastola de Intxaurrondo. Es la Semana de Teatro que se organiza en el centro, abierta al barrio, y en la que las representaciones de los alumnos de 2º y 3º de Primaria tendrán lugar los días 30 y 31 de marzo y 1 de abril, de 10 a 11 de la mañana las dirigidas al alumnado, y de 3 a 4 de la tarde las dirigidas a padres y madres. Los de 4º, 5º y 6º de Primaria han hecho ya sus representaciones los días 15, 16, 18, 22, 23, 24, 25 y 26 de marzo, también dirigidas a padres-madres y alumnado. En esta ocasión los padres-madres espectadores fueron de la ikastola Aitor y Mendiola Gurasoak, además de miembros del centro Alai-etxe.





## 25º ANIVERSARIO DUMBOA (IRUN)

**Del 14 al 23 de mayo el colegio Dumboa** de Irún llevará a cabo toda una serie de actividades escolares y extraescolares para conmemorar el veinticinco aniversario de su creación. Los alumnos-as de 5º y 6º realizarán una investigación en el Archivo, en Internet, en libros, hablando con particulares... es decir, buscando información sobre el colegio, el barrio, el canal de Dumboa y sus alrededores y, con todo ese material, se editará una revista Especial Aniversario a finales de mayo. También surgirá de este trabajo el anagrama del centro, que será presentado el 14 de mayo por parte de el alumnado de 5º y 6º. Por otro lado, todos los ciclos participarán en la elaboración de carteles conmemorativos.
El acto inaugural tendrá lugar también el 14 de mayo con el siguiente programa: Presentación; “Ohorezko agurra”, interpretado por dos parejas de alumnos; discurso de las autoridades; actuación de la Big-Band del Conservatorio; sesión de danza a cargo del primer, segundo y tercer ciclo; recital de Anabel Rus (ganadora del Festival de la OTI del año 1996) .



El día 17 de mayo, a las 3 de la tarde, tendrá lugar un concurso literario sobre el tema “¿qué es la escuela para mí?”, en el que podrán participar alumnos y exalumnos del centro. El día 18, también a las 3 de la tarde, padres y madres voluntarios contarán sus experiencias escolares a sus hijos e hijas. El día 20 de mayo, de 3 a 4 de la tarde, se desarrollarán diferentes actividades deportivas (fútbol, béisbol y aeróbic); el 21 a las 11 de la mañana alumnos-as de 5º ofrecerán una representación teatral a los de infantil y primer ciclo y, a las 3 de la tarde, los de 6º representarán su obra a los de 2º ciclo. Finalmente, el 22 de mayo a las 11 los de tercer ciclo representarán sus obras a los padres y madres. Acabadas las representaciones se repartirán los premios del concurso literario y, a continuación, se ofrecerá un lunch en el porche del colegio.

## UDAKO EGONALDIAK AZKARATEKO BARNETEGIAN

**Azkarateko (Donibane Garazi) barnetegiko udako egonaldiak antolatzen ari dira dagoeneko.** Aurreko urteetan bezala, astebeteko egonaldiak antolatuko dira, igandetik larunbatera, lehena izan ezik; lehenengo egonaldia hiru urtekoa izango da. Sei eta hamaika urte bitarteko haurrentzako egonaldiak dira, eta egutegi hau prestatu da: 1. txanda, uztailaren 15etik 17ra; 2.a, uztailaren 18tik 24ra; 3.a, uztailaren 25etik 31ra; 4.a, abuztuaren 1etik 7ra; 5.a, abuztuaren 8tik 14ra; 6.a, abuztuaren 15etik 21era eta 7.a, abuztuaren 22tik 28ra. Asteko egonaldiaren prezioa 170 €-koa da, eta lehen txandako hiru eguneko egonladiarena 75 €-koa. Izena emateko epea maiatzaren 1etik 31ra egongo da zabalik. Interesa duzuenok, deitu Baikarara.



## ASTEASUKO INFORMATIKA TAILERRA

**Ikasturte honetan,** Pello Errota (Asteasu) eskolak informatikako bi proiektutan parte hartuko du: alde batetik, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen “Premia” planean, eta, bestetik, Mikrosoft-en laguntzaz gauzatuko den “Tablet PC” proiektuan.
PREMIA PLANA: Orain dela hiru urte Eusko Jaurlaritzak informatika plan bat martxan jarri zuen, Euskadiko eskola publiko guztietan. Plan horren arabera, informatika ekipoak berritzen ari dira, baita loturen kalitatea hobetzen ere.
Gure eskolan, uztailean hasi ziren obrak: ordenagailu zentral bat jartzeko gela berezi bat, sare berri baten instalazioa,...
Aldizkari hau kaleratzen denerako, informatika gela zeharo hornituta egongo da: mahai eta aulki berriak, hamaika ordenagailu, sareko inprimagailua, etab.
“PC TABLET”: Joan den ikasturtearen bukaeran, Microsoft enpresak zabaldu zuen eskaintza baten berri izan genuen: eskola txiki bateko 4. mailako ikasleentzako Tablet izeneko ordenagailu eramangarriak eskaintzen zituen (hamabi ikasleko ordenagailu bana, eta beste lau gehiago, irakasleentzat).
Gure ikastetxekoa ez da horrelako lehenengo esperientzia izan; iaz, “Ariño” izeneko Terueleko herri txiki bateko eskolan aurrera eraman zuten proiektu bera.



## ALKIZAKO IBILALDIA

**Hemen gaituzue, Ernio magaletik geure bizi grinak kontatu nahirik.** Alkizako eskolakoek egunean zehar egiten dugunari buruz idatziko dizuegu.
Egunero goizeko bederatzietan batzen gara eskolako familia: nagiak kendu, ametsak kontatu, eta gelara. Han, mate tokatzen zaigu: 4ko biderketa taula errepasatu, buruketa batzuk egin, eta, bigarren saioan, Ikaztegieta eta Alkizako eskoletan batera dabilen musikako andereñoak, abestien letrak partiturei egokiarazten dizkigu.
Atsedenaldian, eta eguraldi ona eginez gero, herriko jolas parkean ibiltzen gara, eta txarra eginez gero, frontoian esku pilotan edo bestelako jokoetan ibiltzen gara. Jolas ordua bukatu, eta gelara itzuli behar! Baina gaur suertea dugu: maisuarekin Alkizako bailaretako baserrien argazkiak ateratzera goaz, eta, gainera, kamera digitalarekin!



Otsamendi tabernan Elenik prestatutako oilasko xerra goxoak bazkaldu ondoren, zaindariarekin aritzen gara altxorraren bila. Ea suertea dugun, eta arratsaldeko ingeleseko saioan “Toy Story “ bideoa ikusten dugun. Ez, ba! Gaur “the body” gaiarekin lotuta, fitxa batzuk egitea agindu digu.
Gure eskolan ume gutxi garenez, soinketa egitera Zizurkil goiko eskolara joaten gara, eta nekazari giroko umeekin “Azeriak, sugeak eta oiloak” jolasean ibiltzen gara han.
Hizkuntza arloan berriz, irratsaioa prestatzen nahiko lan! Behintzat Leteko Axun entzule fina dugu.
A! Billabonako igerilekura ere joaten gara urtero, ia hilabetez, arratsaldeetan, eta handiek gehiago dakigunez, txikiei lagundu behar izaten diegu uretan¡.
Tarteka, lehengo batean adibidez, mikrobusa hartu, eta egun-pasa Kuboko Juan Luis Goenaga, Zumeta eta Gorriti artisten erakusketa edo Fraisoro Nekazaritza Eskola ikustera joatea tokatzen zaigu.
Eskolatik atera eta judo egin ondoren, etxerako ordua iritsi zaigu. Etxean ere, aitak izango du guretzako lanen bat prest: mendi aldera joan satorrak akabatzera..., ukuiluko azpiak egitera..., auskalo! Eskerrak gaur Ixiarrek ez digula etxeko lanik jarri!
Nahiz eta, mapa askotan Alkiza agertu ez, edota ADSL famatu hori eskolara iritsi ez, gure eskola xume hau ikaragarri maite dugu.

## MEDIATECA EN SAN JOSE DE CALASANZ

**Con 125 metros cuadrados de superficie,** el colegio San José de Calasanz, del donostiarra barrio de Altza, está a punto de estrenar su mediateca, situada junto al estudio de radio del centro. Consta de cinco espacios diferenciados: una biblioteca para Primaria (con un ordenador de consulta de fondos), una zona de cuentos para educación infantil, una zona de ordenadores (con conexión a Intenet y en red), una zona audiovisual (con televisión, video, DVD y cuatro puestos con auriculares) y una zona bibliotecaria con ordenador de gestión de mediateca y almacén. A la mediateca se puede acceder desde el exterior del centro y hasta las 18,30 horas tendrá un horario totalmente libre.



## EUSKAL DANTZAK, ZUHAIZTIN

**Martxoaren 7an, igandea, eguerdian,** Euskal Dantzen jaialdia egin zen Zuhaiztin (Donostian). Donostiako Amara Berri, Herri Ametsa eta Zuhaizti ikastetxeek parte hartu zuten jaialdi hartan. Guztira, 140 bat neska-mutil aritu ziren, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetakoak, eta dantza hauek egin zituzten: Agurra, Neskatxena, Zinta-dantza, Ezpata-dantza, Arku-dantza, Ingurutxo, Saski-dantza, Batelariak, Fandango eta Arin-Arin.



# SEMANA DE LA INTERCULTURALIDAD

# KULTUR ARTEKO ASTEA

21 AL 27 DE JUNIO DE 2004

aurrera doan herria

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

**miramon**

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

# *DONOSTIAN*

## *HONA HEMEN ZIENTZIA AURKITZEKO FORMULA:*



**[jakin + jolas]$^2$ = miramon**

***Kutxa**k, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Miramon.Zientziaren KutxaGunea**.*
*Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.*

- *156 esperimentu elkarreragile.*
- *10 gaikako erakusketa iraunkor.*
- *Planetarioa.*
- *Behatoki astronomikoa.*
- *Aldi baterako erakusketak.*
- *Ikastetxeetarako hezkuntza-programak*
- *Programa didaktikoak*
- *Aparkalekua eta bertaratzeko bide erosoak.*

***Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA***

| | | |
|---|---|---|
| *Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte:* | *Asteartetik larunbatera* | *10 - 19 h.* |
| | *Igande eta jaiegunetan* | *11 - 19 h.* |
| *Ekainaren 1etik irailaren 30a arte:* | *Asteartetik larunbatera* | *10 - 20 h.* |
| | *Igande eta jaiegunetan* | *11 - 20 h.* |

*Itxita: Astelehenetan, Urtarrilaren 1an, Urtarrilaren 20an eta Abenduaren 25ean*

www.begira.com

kutxa
gizarte ekintza